

«Getxon askotariko zuhaitzak daude, ehun urtetik gorakoak ere»



BASOZALEAK ELKARTEA
Angel Asensio, Enrique Elexpuru
eta José Luis Ugartetxe

hirulka

115. zenbakia

2018ko otsailaren 8tik otsailaren 14ra arte

GAZTELEKUKO BEHARGIN BAT KALERATUTA | 4

«LANGILEEN ESKUBIDEAK URRATU DITUZTE»

Getxoko Aisibizia Elkarateak hautagai sindikal bat kaleratu zuen abenduan. Epaiketa martxoaren 13an izango da.

ERANDIOKO KIROLDEGIETAKO GREBA | 5

KONPONBIDEA EZ DA ATOAN AURREIKUSTEN

Zapatuan beteko dira 3 hilabete Bi Sport enpresako beharginek greba hasi zutenetik. Enpresak ez du ELA negoziazioan onartu gura.

HIRUKA | 6

SOPELAGAZ KONPROMETITUTA

Sopelako Udalaren babesaren bermerik ez dauka HIRUKAk. Hala ere, betiko moduan eutsiko diogu sopoloztarrekiko konpromisoari.

EMAKUMEAK ESZENAN | 10

ANDREEK EGINDAKO ANTZERKIA TAULARA

Aztiak taldeak *Las herederas* antzezlanaren aurkeztuko du otsailaren 11n, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan.

Eutsi Goyari!

Gorka Aguirre algortarraren eta Agar Martínez de la Hidalga gorliztarraren lana saritu egin du Espainiako Zine Akademiak; denera, hamar «buruhandi» irabazi ditu *Handia* filmak.



«Efektu bereziak gizonen lana direla uste dute askok»

Hautagaien artean bera bakarrik izendatu arren, makillaje eta ile-apainketa onenaren Goya saria bere neska-laguna eta lankidea den Agar Martínez de la Hidalga Gómez gorliztarrari eskaini zion Gorka Aguirre Serrano algortarrak.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Olga Cruz ile-apaintzaileagaz eta Ainhoa Eskisabel makillatzaileagaz batera, Gorka Aguirreri eman zioten makillaje eta ile-apainketa onenaren Goya saria, *Handia* filmean egindako lanagatik, otsailaren 3an Madrilan egindako galan. Jon Garañok eta Aitor Arregik zuzendutako filmak hamar «buruhandi» eskuratu zituen. Efektu berezien makillajeari dagokionez, garaikurra bere neska-laguna eta lankidea den Agar Martínez de la Hidalga gorliztarrarena ere badela aldarrikatu du algortarrak, hasiera-hasieratik. Izan ere, Itzubaltzeta/Romon daukaten tailerrean, ez du batak besteak baino behar handiagoa egiten; erdibana egiten dute dena.

Zer sentitu zenuten irabazlea *Handia* zela entzuterakoan? AGAR MARTÍNEZ DE LA HIDALGA GÓMEZ: Nik ezusteko ederra hartu nuen; hunkitu egin nintzen.

GORKA AGUIRRE SERRANO: Egia esan, hamar kategoriatan entzun ahal izan genuen aukeratutako lau pelikulen artean *Handia* zela irabazlea. Sekulako zirrara sortu zuen horrek pelikulako lankideen artean. Makillaje onenaren saria banatu zutenean, ikaragarria izan zen. Momentu horretan, Goya saria jasotzeko eskailerak jaisten egon arren, benetako ez dela uste duzu, bertan egongo ez bazina sentitzen zarelako. Oso urduri nengoen.

Ibilbide luzean egindako esfortzuaren saritzat har daiteke garaikurra jasotzea? G.A.: Bai, zelan ez. Hala ere, gure ibilbide profesionala ez da Goya ematen dizutenean amaitzen. Are gehiago; egun horretatik aurrera egin beharko dituzun esfortzua eta ahaleginak handiagoak dira. Izan ere, nire ustez, efektu berezien makillatzaile baten ibilbide profesionala hiltzen denean amaitzen da. Bizirik zauden bitartean, uneoro egoten zara erronka berriak zure gain hartzen; ezin duzu esan «Goya irabazi dut, gorenera iritsi naiz». Zeure burua beti dago erronka berrien bila; gure kasuan, behintzat, horrela da.

Goya saria irabaztea ez da gutxi. Nazioarte-mailan ere garaikurrak irabazi gura zenituzkete? A.M.: Bai noski!

G.A.: Egiten duzun lanaz pozik egotea da bizitzan irabaz dezakezun saririk handiena, baina sariak beti dira ondo hartuak.

Gorka, sarirako hautagaia zu izan arren, errodalean Agarrek egin zuen lanik handiena, ezta? G.A.: Nik arantza txiki bat neukan gai horrekin. Arazoa da horrelako sarietako hautagaitzat pertsona bakarra aukeratzen dutela, nahiz eta lantokian bi izan eta beharra erdibana egin. Aurtengo galan zinemagintzan emakumeek leku gehiago izan behar duela aldarrikatu dute; hala ere, guri dagokigunez, elkarrizketetan baztertu egin dute Agar, besteak beste. Emakumeen afera alde batera utzita, Mariano Garcíari gauza bera gertatu zitzaion.

A.M.: Bai. Drama FX enpresan lan egiten du Jon Serranogaz. G.A.: Jon ipini zuten hautagai eta Mariano ez zuten aipatu ere egin, enpresa biena izan eta bakoitzak lanaren erdia egin arren. David Herasegaz batera, Serranok irabazi zuen efektu berezien saria, *Handia* pelikulagatik.

Emakumea baztertua izaten da zineman? A.M.: Neurri batean horrela da; gure lan-esparruari dagokionez, efektu bereziak gizonen egiten duten zerbait dela pentsatzen dute askok.

G.A.: Badirudi emakumeak zinemagintzaren piramidearen mailarik altuenetan egon beharko lirakeela bakarrik: esaterako, filmen zuzendari-lanetan. Nik ez dut hori baztertzeko; baina teknikoagoak diren lanetan ere emakumeek lekua daukate aldarrikatu beharko lukete. Inork ez ditu aipatzen andre elektrikariak edo efektu berezietan lan egiten dutenak.

Eta ez dira gutxi.

A.M.: Gainera, lan bikaina egiten dute.

G.A.: Horren garrantzitsuak ez ei diren arlo horiez ez dute ezer esaten; Goya sarien gala, gehienbat, aktoreentzat eta zuzendari-entzatzat da.





Eneko Sagardoy erraldoi bihurtzeko tresnak. © GORKA AGUIRRE



Goya gehien irabazi duen hirugarren filma

Espainiako zine akademiaren hamar Goya besapean zituela itzuli zen Euskal Herrira Jon Garaño eta Aitor Arregiren *Handia* filma; Goya garaikurren historian sari gehien jaso dituen hirugarren pelikula da.



Errodajeen Agarrekin egin zuen lanik handiena. © GORKA AGUIRRE

Makillajeko efektu bereziek euren Goya saria izan beharko luketela uste duzue? G.A.: Bai. Makillajetik eta ile-apainketatik harago doazen lanak egiten ditugu guk; makinak eta moldeak erabiltzen ditugu gure tailerrean.

A.M.: Berez, Eduardo Casanovaren *Pieles* zen gure lehiakide nagusia, Goya sarietan. Ileordeak eta garaiko makillajea erabili zituzten haiek; guk bestelako gauzak egiten ditugu.

Zelan lortu zenuten Eneko Sagardoy 2,42 metroko erraldoi bihurtzea? G.A.: Batetik, be-

larriak eta hortzak banantzeko eta masaila handiago egiteko protesiak egin genituen. Horrez gainera, gorputzaren morfologia osoa aldatzen duen jantzia ipini genion: ukondoek, belaunek eta gorputzeko adarrek handiagoak ziruditen. Azkenik, besoetarako luzagailuak eta akuilu-makuiluak ipini genizkion.

Odola eta erraiak dira zuen lanaren beste atal bat. Nondik datorkizue horrekiko zaletasuna? G.A.: Bel-

durrezko filmak ikusten zale-tzen hasi nintzen: 70eko, 80ko eta 90eko Italiako *splatter* zinema-estiloko pelikulak gustuko nituen; heavy metala eta odola nagusi ziren horietan. Efektu berezietako teknikariek fikzioaren magoak ziruditen: odola eta erraiak prestatzen zituzten, eta kamera trukatzu bene-takoak bailiran agertzen ziren pantailetan.

A.M.: Egia esan behar badizut, niri betidanik gustatu izan zaiz-



kit zauriak eta odola; txikitatik datorkidan gauza da. Jolasten geundela, etxean hartzen genituen kolpeak; urraduraren bat egitea edo azazkalen bat puskatzea eguneroko ogia ziren. Eba-kuntza bat edo beste ere egin diete etxekoei.

Odolak eta erraiak baino beldur handiagoa ematen dizue Goya sarien galak? G.A.: Kar, kar. Trajea janzteak, sariaren bila jaitsi behar izateak eta jende guztiaren aurrean berba egi-teak edozein pelikulak baino beldur handiagoa ematen dit, bai.

Oso urduri nengoen garaikurra hartzera joan nintzenean. Hala ere, atrilaren aurrera heldu eta eskerrak nori eman behar nizkion oso argi ikusi nuen: *Handia* filmeko kideei, Agarri eta nire amari.

Zelan ikasi duzue gaur egun zuen ogibidea dena? G.A.: Gaztea nintzenean ez zegoen gaur egiten dakiguna ikasteko lekurik, ezta ikastarorik ere; Internetik ere ez geneukan. *Fangoria* aldizkariagaz hasi nintzen efektu bereziak zelakoak ziren ikus-ten. Argazkien bidez, arlo horretako teknikariek egiten zuten lana ikus zitekeen: esaterako, argizarizko beso bat zelan ur-tzen zuten, bero-kanoia eta tutuak sartuz. Filma ikusten ze-nuenean, besoa benetan urtu egiten zela ematen zuen.

Teknologia berriek baztertu egin dituzte horrelako lanak?

A.M.: Neurri batean galdu egin dira, baina teknikak uztartu ere egiten dira.

G.A.: Adibidez, *Handia* pelikulan buruan emandako tiro bat irudikatu genuen: odola botatzen duen *blood tubing* izeneko bat edo zulodun buru faltsu bat egin beharrean, berdez pintatu genuen eta, efektu digitalen sailean, mapatu egin zuten eta ze-gokion kolorea ipini zioten.

Agar, zuk zelan ikasi zenuten? A.M.: Gorka izan nuen irakasle; *Gernika* filmean elkarrekin lan egiteko deitu zidan, eta ordu-tik, batera gaude. Bikotekideak izateaz gain, lankideak gara.

G.A.: Hala ere, makillaje-ikasketak egin zenituen.

A.M.: Egia da. Bilboko operan ere lan egin nuen.

Gorka, zer iritzi zeukaten gurasoek odolarekiko zure zaletasunaz? G.A.: Algortako Sarrikobaso kalean bizi nintzenean, oso ezaguna nintzen auzoan; zauri faltsuak ipini eta kalera ir-teten nintzen, jendearengan zer eragin zeukaten ikusteko as-moz, izan ere ondo eginda zeuden. Gurasoek burutik jota nen-goela uste zuten; berriktaldia ere eman zidaten. Garai hartan ez ziren makillajeko efektu bereziak ondo ezagutzen eta... *Erastunen jauna* eta halako pelikulak oso baliagarriak izan dira guk egiten dugun lana ezagutzera emateko.

Zer aholku emango zenioke lan honetan jardun gura duen gazte bati? A.M.: Lan egiteari ez uztea oso garrantzitsua da. G.A.: Horrela da, beti dago egiteko zer edo zer. Denbora handia eskaini behar zaion ogibidea da hau.

A.M.: Gainera, egunero ikasten da zer edo zer berria.

G.A.: Azkenik, lan hau gustukoa izatea funtsezkoa da. ◀

GETXO | Gaztelekuko langilearen kaleratzea

«Aisibizia elkarteak langileon eskubideak urratu ditu»

Hauteskunde sindikaletako hautagai bakarra zena kaleratu du Aisibizia Elkarteak. LAB sindikatuak gertakari horren «larritasuna» salatu eta langilea berronartzea eskatu du. Martxoaren 13an izango da epaiketa.

IKER RINCON MORENO ►

Itzubaltzeta/Romoko elizan egoitza duen elkarte da Aisibizia. Gaur egun Algortako gaztelekua eta Areetako ludoteka kudeatzen ditu, eta laster Romo Kultur Etxean zabalduko den gaztelekua ere hartuko du bere gain. Orain dela gutxira arte, elkarteak zazpi langile zituen kontratatuta, baina horietako bat kaleratu zuen joan den abenduan.

Kanporatutako langilearen arabera, «askotariko irregularitasunak» egon dira enpresan, hala nola lan-orduetan, kontratuetan, soldatetan, opor-egunetan eta kategorien onarpenetan. Gabezia horiek konpondu guran, LAB sindikatuan afiliatzea erabaki zuen urrian. Azaroan, langileek aho batez erabaki zuten hauteskunde sindikalak egitea, eta bera izan zen hautagai izateko bere burua aurkeztu zuen bakarra, LABen izenean. Ondoren, kudeatzaileagaz bildu ziren langileak, ikusitako gabezia denak azaldu eta hauteskunde berri emateko. Hala, azaroaren 18an hauteskunde-deialdia erregistratu eta abenduaren 20a aukeratu zuten galdeketa eguna izateko. Kaleratutako gazteak azaldu duenez, baina, abenduaren 12an Aisibiziako kudeatzaileagaz bildu zen, «nire egutegia begiratzeko, oporren kontua argitzeko eta nomina eskatzeko». Handik egun bira, Aisibiziako zuzendaritzak bilera batera deitu zuen gaztea. Bertan EDE Fundazioko arduraduna eta Algortako eskauten taldeko ordezkaria zeuden, eta hura kanporatzeko agindua eman zuten, «konfiantza galduta» zutela eta «errespetu faltak» izan zituela argudiatuta. Une horretan, gazteak jakinarazi zien hori ez zela horrela, dena faltsua zela eta «delegatu sindikala izango zelako» kanporatu zutela.

Azaldu duenez, enpresak zentsutik atera gura izan zuen bera, «kaleratua izateaz gain, aukeratua izatea galarazteko». Hauteskunde-mahaia osatzen zutenek, baina, hura bertan mantentzea erabaki zuten. Horren aurrean, hauteskunde bezperan, Aisi-



Langilea kaleratu ostean, hainbat mobilizazio egin ditu LAB sindikatuak udalerrian. IKER RINCON MORENO

Prozesu penala abiarazi dute

Urtarrilaren 23an Aisibizia Elkarteak hauteskundeak inpugnatu zituen; hala ere, arbitrajeak ondorioztatu du prozesua legala izan dela. Orain, epaiketaren zain daude alde biak. Martxoaren 13an izango da auzia, Bilboko Gizarte epaitegian. HIRUKA Aisibiziagaz harremanetan ipini da, baina hark ez du inolako argibiderik eman gura izan.

biziak gutun bat bidali zien langileei prozesua «ilegala eta irregularra» zela esanez. «Mehatxua izan zen, beldurra sortu nahi zuten», azaldu du gazteak. Dena dela, hauteskundeak egin eta LABeko hautagaiak jaso zituen boto gehien: aldeko lau eta hiru zuri. «Orain egoera da kaleratutako pertsona bat dela langileen ordezkaria», azaldu du LAB sindikatuak; hori dela eta, «gaztea berronartzea eta kaleratzea deuseztatzea eskatu dugu, langileak antolatzeagatik kanporatu dutelako».

Modu berean, enpresak udal-zerbitzu bat eskaintzen duen heinean, erantzukizuna eskatu diote Udalari. Hark azaldu du dokumentazio osoa aztertzen ari dela, enpresak irregulartasunik egin ote duen edo ez argitzeko. Bere aldetik, Aisibizia Elkarteak akordio ekonomiko batera iristeko proposamena egin zion gazteari, baina hark uko egin dio proposamenari: «Haiek bada-kite astakeria bat egin dutela eta ez zaie interesatzen gertakari hauek denak azaleratzea. Langileen eskubideak urratu dituzte». Era berean, nabarmendu du kaleratze horregaz Aisibiziak «langileon antolakuntza moztu nahi izan duela errotik». ◀



ERANDIO | Kiroldegietako greba

Negoiazioek kale egin dute hiru hilabete



Kirol-elkarteak eta bestelako abonatuak pairatzen dabiltza grebaren kalteak. HODEI TORRES

Zapatuan hiru hilabete beteko dira kiroldegietako langile gehienek greba abiarazi zutenetik. Kexu dira, enpresak negoziatu gura ez duelakoan.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Aitor Fernandez Ogueta da ELAko delegatua Bi Sport 2011 SL enpresan, kiroldegietako kudeaketa-kontratua daukan sozietatean. Fernandezek aitortu duenez, «90 greba-egunen ostean, langileok txarto gaude». Gainera, Jon Loizaga administratzaileak «aurreratu zigun ez dela gehiago jesarriko gure sindikatu-ordezkaritzagaz». Hala, grebalariek ez dakite enpresa prest dagoen beste batzar batera agertzeko; susmatzen dute «enpresak ez duela interesik langileen baldintzak hobetzeko».

Egunotan ohiko dinamikari eutsiko diote, egunero txistualdi bi egiten: 10:00etan Erandio Udaletxearen atarian, eta 11:00etan enpresak Leioan egoitzaren aurrean. Modu berean, grebaren 100. egunaren bueltan herritarrek informatzeko agerraldia prestatzen dabiltza.

ABONATUEN %20 GALDU DA. Fernandez pozik agertu da herritarrek grebalariei eman dieten babesagatik. Gogorarazi du 3.000 pertsonak sinatu dutela euren aldeko aldarria eta udalerritik martxa egin zutenean ere hainbat jende batu zitzaizela, elkartasunez. Hala eta guzti, uste du Udala ez dela «gataz-

ERABILTZAILEEI GALDEZKA

«Lan-baldintzak hobetzeko ondo iruditzen zait presio egitea»

NAGORE MARCOS
LEIOA

«Hau lotsagarria da, eta hein handi batean Udalarena da errua»

JUAN ANTONIO CRIADO
ASTRABUDUA

«Kirol-eskaintza publikoa eta doakoa suntsitu gura dute»

OLATZ AGIRREGOITIA
ERANDIO

kan inplikatzeko, eta alkateak ez du bizi-seinalerik ere ematen».

Hiru hilabeteen kiroldegiek abonatuaren %20 galdu dituzte; 600 bazkide inguru, Josean Pérez Kirol zinegotziak baieztatu duenez. Gainera, 500 kexa baino gehiago erantzun ditu Udalak, eta eskatu dionari dagokion dirua bueltatu dio, enpresari fakturretatik eman ez duen zerbitzua deskontatu dion bitartean. «Legea betetzen gabilta. Gustatuko litzaike gehiago egitea, baina ezin dugu», azaldu du Pérezek. ELAk, Ganemosek, EH Bilduk eta Podemosek eskatu diote Udalari enpresa presionatzeko.

LANGILEEN ESKARIEZ ADOSTASUNIK EZ.

Zehatzak dira langileek Bi Sporti egin dizkieten eskaerak: azken urteotan ordu osagarri asko izan duten langileek ordu horiek jardunaldian kontsolidatzea; %2ko gehi kontsumo-prezioen indizeko soldata-igoera; urteko ordu-kopurua 1.710etik 1.542ra jaistea, hainbat urtean; gaitzariak azken unean langileak lanera deitzeagatik eta kirol-ekin-tza erasokorrek prestatzeagatik; kateatutako behin-behineko kontratuak iraunkor etengarri bilakatzea; eta mediku eta espezialisten kontsultetarako ordu-kopurua ez mugatzea.

Fernandezen ustean, langileen eskaerak «oso logikoak dira, baina enpresak esaten digu errealitatek kanpo gaudela». Gainera, «kontu asko ez dira diru-arazoak, borondate-mailakoak baizik». HIRUKA ahalegindu da Bi Sportegaz harremanetan ipintzen, baina Jon Loizagak ez die utzitako mezuei erantzun. ◀

Gure esku



ZELAI
NIKOLAS ZIORDIA
Legelaria

Erabakiz, erabaki aroa zabaltzen

Herritarrok egunero hartzen ditugu erabakiak etxean, lanean, lagunenean... Erabaki horiek gure etorkizuna marrazten dute. Erabakitze gaitasuna pertsonari oso lotuta dagoen ahalmena da, horrek egiten baikaitu norbanako, gizaki, eta horrek ematen digu duintasuna eta indarra bizitzan aurrera egiteko.

Gure herriko erabakiak ere geure esku izan nahi ditugu, gu izaten jarraitzeko, gure bizilagunekiko harremanak antolatzeko eta eskura ditugun baliabideak behar bezala banatzeko, herritarren ongizatearen mesedetan. Hots, herriaren duintasuna zaindu eta babesteko, herri gisa etorkizuna izateko.

Erabakitzeak batzuetan desadostasunak eta liskarrak sortzen ditu eta jarrera irekiak, eskuzabaltasuna eta inteligentzia behar izaten dira egoera bideratzeko. Adostasuna lortuz gero, denek irabaztea lortzen da, nahiz eta bakoitzak ez duen lortzen nahi zuen guztia. Liskarra nagusituz gero, denek galtzen dute, baten batek irabaziko duen esperoan.

Katalunian ari dira herri gisa erabakitzen. Momentuz liskarra da nagusi. Kultura demokratiko oso ezberdin biren arteko talka gertatzen ari da. Alde batetik, Espainiaren batasuna defendatzen dutenak daude eta beren nagusitasuna zaintzeko jarrera ez demokratikoak azaltzen ari dira. Estatuaren batasunaren lelopean, herritarren eta Kataluniako erakundeen eskubideak urratzen ari dira. Kezka-garria. Beste aldetik, Kataluniako herriaren borondate demokratikoa defendatzen dutenak daude, abenduaren 21eraino herri gisa jardun dutenak. Ez dute indarkeria erabili, gehiengoak josten ari dira eta herri duintasun handia erakutsi dute orain arte, barne liskarrak eta tentsioak tarteko.

Espainiako Estatuan erabakitzea ez da erraza eta bide ezezaguna da, baina aukera paregabea eskaintzen du denok irabazle suerta gaitzen. Gu beti Kataluniarekin.

HIRUKA Sopelakoa ere bada



Sopelako Udalaren babesaren bermerik ez daukan arren, HIRUKAk betiko moduan eutsiko dio sopeloztarrekiko konpromisoari, euskarazko eta kalitatezko informazioa sortuz eta herrian zabalduz, orain arte bezala.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **HIRUKA** ►

Uribe Kostako hamar herrietako euskaldunontzat egin-dako hedabidea da HIRUKA, bertoko euskaldunok hurreko eta kalitatezko informazioa jasotzeko aukera eduki dezagun geure hizkuntzan ere. Euskaraz bizitzeko milaka lagunek egiten duten ahalegin kolektibo handi horri geure alea gehitzen diogu komunikazio-proiektu hau aurrera eroaten gabilzanok.

Horixe da gure helburua, eta horregatik webgunean egunero eta kalean egunero aurkitu gaituzue azken hiru urteotan, Erandiotik Lemoizera bitarteko informazioa zuengana helarazten. Halaxe izan da orain arte eta halaxe izaten jarraituko du aurrerantzean, baita Sopelan ere, sasi denen gainetik eta laino denen azpitik.

ERAKUNDEEN ETA HERRITARREN BABESA. Hedabide hau bederlatzi beharginen eta hainbat kolaboratzailearen lanagaz egiten da. Lan horrek HIRUKA Bazkideen eta HIRUKA Lagunen babesa dauka, HIRUKA kooperatiba bat baita, irabazi asmo bakoa, eta Gizarte Ekimeneko izendapena daukana.

Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa jaso dugu, hala nola Uribe Kostako udalerriena. Hitzarmen bidez, akordio bidez edota guk eskainitako zerbitzuak kontsumituz, HIRUKAri bultzada eman diote horrela. Erakundeek modu horretan egiten diguten ekarpena aurreikusiz, gure aurrekontua osatu dezakegu urte hasiera denetan.

47

banaketa-leku dauzka HIRUKAk Sopelan, hau da, eskualde osoan daukanaren %12. Astero 1.265 ale uzten dira leku horietan, kopuru osoaren %16.

7.000

euro inguru kostatzen zaio urtero HIRUKAri Sopelaren gaineko informazioa inprimatzea, diseinatzea eta banatzea. Beharginen lana eta bestelako gastuak gehitu behar zaizkio horri.

8.792

euskaldun eta ia-euskaldun bizi dira Sopelan, populazioaren %70 inguru. Horiengana denengana ailegatzen da HIRUKA.

Zoritxarrez, 2016tik ezin izan dugu Sopelako Udalagaz aurreikuspenik egin, ez dugu-eta harengandik konpromiso zehatzik jaso, eta lortu dugunean, 2017an kasu baterako, urteko azken egun baliodunera arte zalantzarikoa izan da beteko ote zen. Normalean lehen hiruhilekoan urte osorako kontuak argi edukitzen ditugu, eta hori ezinbestekoa da hedabide txikiontzat, ziurtasunik ezak kalte egiten baitigu urteroko helburuak eta proiektuak finkatzeko orduan. Aurrez adostutakoa eskuratzeko azken momentura arte eta zalantzarik beteta itxaron behar izatea ez da gure lana ondo egiteko bermerik onena.

HIRUKAREN EKARPENA SOPELARI. Sortu zenetik, HIRUKAk Sopelaren gaineko ehunka albiste jaso ditu, eta hamaika elkarrizketa egin dizkie bertako herritarrei edo bertatik igarotako pertsona interesgarriei. Informazio hori dena, eskualde osoagaz batera, aldizkariaren banaketa-leku ugariaren bidez zabaltzen dugu, webgunean ez ezik.

Sopelako 47 gune publikotara eta pribatutara ailegatzen da HIRUKA, hau da, Uribe Kosta osoko banaketa-lekuen ia %12ra. Denera, zenbaki bakoitzaren 1.265 ale bidaltzen dira astero, osoaren %16 ingurura. Azpimarratzekoa da Ander Deuna ikastolan 450 ale banatzen direla eta DBHko 3. mailatik beherako ume denek jasotzen dutela bana; Zipiriñe eskolan eta Iberre institutuan ere uzten ditugu 25na ale.

Esan beharrik ez dago profesionaltasunez eta konpromisoz jarraituko dugula sopeloztarrei euren herriko eta eskualde osoko kontuen berri ematen. 9.000 inguru euskaldun eta ia-euskaldun daude Sopelan, populazioaren %70 inguru, eta euren mesederako gabilta gu lanean. Orain arte legez, euren babesa jasotzen segituko dugula zalantzarik ez daukagu, baita euskarazko hedabideak sustatzeko borondatea daukaten herritar eta erakunde denena ere. Ekarpene hori nahitaezkoa da Uribe Kostak kalitatezko hedabide euskaldunak eduki ditzan. ◀



Arduraten nauena

**TXABER
OURO ARRUZA**
Ekonomialaria

Zelakoa izango dugu etorkizuna?

Egia esan, lehenengo iritzi-artikuluaren batek ez daki nondik hasi eta sarri imajinatzen du folio zuriak paperontzian amaituko duela. Ingurua aztertzen dugu, kezkatzen gaituen horri erreparatu arte. Hala izanik, oraingoan berrikuntzari buruz mintzatuko naiz, duela urte batzuetatik hona inbaditzen gaituzten aldaketen gainean, hain zuzen ere.

Atzera begiratuz gero, aurreko mendearen amaieran gure bizitzan sartu ziren aldaketa handiak errepasatuz, gogoratuko dugu 70eko hamarkadan lehen ordenagailuak eta bideo-jokoak agertu zirela; 80ko hamarkadan gaur egun etengabe gurekin daukagun telefonia agertu zela; eta 90ekoan Internet zabaltzen hasi zela eta mende berria ate-joka zegoela, zoratu egin gintuztela «2000 efektua»ren kontu harekin eta «diru bakarra»rekin, besteren artean. Ordutik, berrikuntzak etengabe aurrera egin du eta, nire kide batek dioen legez, haren olatuak ez dira dagoeneko lehengoak bezala; haiek urteak irauten zuten, eta oraingoak, berriaz, oso iraupen laburrekoak dira, sarri elkarrekin bat egiten duten arte.

Geroz eta maizago, berrikuntza eta teknologia gure eguneroko bizitzan daukagu, baina etorkizuneko aldaketak gureganatzeko, aldiz, gero eta denbora laburragoa daukagu. Gauzak horrela izanik, konektibitateak, komertzio elektronikoak, domotikak, dronak, 4.0 industriak eta abarrek ez digute atsedenik ematen. Jakin badakigu eskudirua desagertu egingo dela, eta dagoeneko gure artean daukagun moneta birtualez mintzatzen hasi dira batzuk. Akaso halako mundua antzematen genuen duela ez hainbeste?

Pertsonalki ez diot inoiz aldaketari kontra egingo, besteak beste geure egungo ongizate-maila ere haren eskutik etorri baita. Baina, berrikuntza gureganatzea lortuko al dugu, bizitzan aurrera jarraitu ahal izateko?

SOPELA | Ospitaleko sarbideak

Prozesu parte-hartzaileak «bermeagaz» egingo dituzte

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kargu hartu zion Sopelako Udalari, joan den urtarrilaren 11n, Olabide-Osteiko bidearen gaineko prozesu parte-hartzailean urratu zuelako Datuak Babesteko Lege Organikoaren 5. artikulua. Erakunde autonomikoaren arabera, «herritarrak aurretik informatu beharra zegoen, modu garbian, zehatzean eta zalantza bakoan». Bulegoak Udalari eskatu dio «etorkizunean prozedura honetan aipatutako moduko egoerak ez errepikatzeko beharrezkoak

Udalak ez zituen herritarrak ondo informatu prozesu parte-hartzailean

diren neurriak hartzea» eta erresoluzioaren berri eman die Udalari eta lege-urratzea salatu zuen eragileari, alegia, Uribe Ospitalea Plataformari. Gontzal Hermosilla alkateak adierazi duenez, Udalak ez du errekurrituko irizpen hori, «ez dagoelako ezer alegatzeko. Arrazoia daukate puntu horretan eta beraz ez dugu ezer alegatuko. Hutsegite bat egon da, eta bermatuko da hutsegite hori hurrengo prozesuetan berriro ez errepikatzea». Guillermo Vio EH Bilduko zinegotziak galdetuta egin zituen adierazpenak Hermosillak. ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK / Cursos intensivos de 5 horas

2 ORDUKO IKASTAROAK / Cursos de 2 horas

MAILA GUZTIAK: A1, A2, B1, B2, C1

OTSAILAREN 19TIK EKAINAREN 29RA ARTE / Del 19 de febrero al 29 de junio

OTSAILAREN 15ERA ARTE MATRIKULA ZABALIK / Matricula abierta hasta el 15 de febrero

LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (Romo)

Tfnoa: 94 464 62 99

Emaila: euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi

Mundu osoko zuhaitzek osatz



Ezki zilarkara
Tilia tormentosa

Zuhaitz indartsua da, eta 30 metroko altuera lor dezake. Beste ezki espezie batzuk baino azkarrago hazten da. Lore zuri edo horixkak ematen ditu, eta usain berezia ematen dute. Ekainaren amaieran edo uztailaren hasieran loratzen dira.



Pika-pika zuhaitza
Lagunaria patersonii

Queensland eta Lord Howe eta Norfolk uharteetako da sortzez, Australiakoa. Munduko hainbat lekutan landatu eta naturalizatu egin da. Loreak hermafroditak dira, bakartiak eta hibiskoaren hostoen antza daukate.



Palmondo kanariarra
Phoenix canariensis

Enbor bakarreko palmondo dioikoa, lodia, zuzena, 10-20 metro garaikoa eta 80-90 zentimetro diametrokoa da. Palmondo nahiko landatarra eta erresistentea da. Palmondo kanariarretik palmaren ezitia eskuratzen da.

Hagin arrunta
Taxus baccata

Enborra marroia eta lodia du. Ariloak salbu, zuhaitzaren atal denek taxina deritzon substantzia toxiko bat daukate: alkaloideen nahasketa bat da, eta dosi handietan, bihotza geldiaraz dezakeen eragin kardiotoxikoa du.



Pinazi pinua
Pinus pinea

Pinuak 25-30 metroko altuera har dezake. Pinazia Mediterraneo aldeko hainbat plateretan erabiltzen da, hala nola gozogintzan, entsaladetan eta saltsa plateretan. Lehen afrodisiakoa zela esan ohi zen.



Zumartxuria
Populus alba

Zuhaitz hostogalkorra, handia, enbor zabalekoa eta sistema erradikal indartsukoa da. Lore arrak handiak eta horiak dira, gerba esekietan; emeak, aldiz, berdexkak dira, oin banatuetan. Hostoak kimatu aurretik loratzen dira.



en dute Getxoko paisaia



Artea *Quercus ilex*

Tamaina erdi eta txikiko zuhaitza da, 16 eta 25 metroko altuera har dezake. Ezkurrik goxoena, abereak elikatzeko erabiltzeaz gain, gizakiontzat ere jangarriak dira; askotan txigortuta jaten dira.

Udalerriko zuhaitz-espezieen %90 batu ditu liburu batean Basozaleak elkarte mikologiko eta botanikoak. Denera, 173 espezie katalogatu dituzte, bertokoak zein exotikoak. Azaldu dutenez, kanpokoak nagusitzen dira gurean, estetikari eman zaiolako lehentasuna lorezaintzan.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIAK: BASOZALEAK ►

Gaur egun ezinezkoa dirudien arren, aspaldi hariztiz eta artadiz inguratuta zegoen Getxo. Hala ere, azken urteotako urbanizatzeko prozesuek eta jardueren ekonomikoek zuhaitz-multzo horiek denak desagertzea eragin dute. Hala, gaur egun, haritzen (*Quercus robur*) zein arteren (*Quercus ilex*) bat edo beste ikus daiteke inguruotan, parkeetan, zelaietan edo lorategietan, baina isolatuta. Dena dela, aitortu beharra dago dibertsitate handia dagoela udalerrian, zuhaitz-espezieei dagokionez. Basozaleak elkarte mikologiko eta botanikoak aniztasun hori batu gura izan du; horretarako, Angel Asensio, Enrique Elempuru eta José Luis Ugartetxe adituek *Zuhaitzak eta zuhaixkak Getxon* liburua argitaratu dute oraintsu. Udalerrian aurki daitezkeen 173 zuhaitz-mota batu dituzte, «ezin izan ditugu denak bildu, baina denaren %90 katalogatu dugula esango genuke». Gainera, horietako bakoitzaren hiruna argazkigaz osatu dute informazioa, enborra, lorea eta fruitua zelakoak diren azaltzeko. Modu berean, espezie bakoitza kale-izendegi batean eta GPS kode baten bidez lokalizatu dute, interesa duenak arbola hori zehazki non aurki daitezkeen jakin dezan. Gura dutenek gida hori eros dezakete Algortako Aldai Patronatuan, 5 euroren truke: «Gure helburua da jendeak gida hau erabiltzea». Horrez gainera, azaldu dutenez, elkarrekin bulegoko ateak zabalik ditu edonork edozein galdera egiteko, astelehenetan eta eguenetan, 19:00etatik 20:30era.

Adituek diotenez, askotariko zuhaitzak aurki daitezke udalerrian, bertokoak zein exotikoak. Horietako asko toxikoak izan daitezkeela ere ohartarazi dute, «Gobela kalean, berbarako, heriotzorriak (*Nerium oleander*) topatu ditugu eta munduko landararik toxikoenetarikoa da». Auzoz auzo, lurraren ezaugarriek eragiten dute espezie bat edo beste egotea. Hala, Areeta eta Gobela aldeetan, ohikoa da pinazi pinuak (*Pinus pinea*) ikustea, horiek erabili baitziren antzina inguru horretako hareatzak trinkotzeko. Zugatzarten, aldiz, askotariko ezkiak topa daitezke, pasealekuan. Neguri eta Aiboa inguruetan makal mota ugari dago, bertako lur pisutsuan ez delako bestelako zuhaitzik hazten. Hala ere, Jolaseta ondoan izugarritzko zedroak (*Cedrus atlantica*) ere ikus daitezke. Algortan, berriz, nahasketa handia dagoela azaldu dute adituek; askotariko akaziak, hala nola zur beltzekoa (*Acacia melanoxylon*) eta mimosa (*Acacia dealbata*), eta palmondoak nagusitzen dira bertan. Andra Mari aldean, oster, pagoak (*Fagus sylvatica*) aurki daitezke, baita hainbat pinu mota ere; azken horiei dagokienez, Galea inguruan dauden pinudiak gaixorik daudela ohartarazi dute

adituek. Ereaga aldean, berriz, milazka (*Tamarix gallica*) da zuhaitz tipikoena; hala ere, Australiatik etorritako pika-pika zuhaitza (*Lagunaria patersonii*) nagusitu da.

Basozaleak elkarteko kideek azaldu dutenez, Getxoko klimak eragiten du dibertsitate hori dena egon ahal izatea. «Heguneak eta itsasoaren ingurunea ere baditu, eta horri esker udalerria ezin hobea da zuhaitz espezie ugari garatzeko».



Zuhaitzak eta zuhaixkak Getxon

Angel Asensio, Enrique Elempuru eta José Luis Ugartetxe adituek osatutako liburua da. 173 zuhaitz eta 520 argazki jaso dira horretan, dagozkien ezaugarri, hosto, enbor eta fruituekin, errazago identifikatzeko. Testu txikiak ere gehitu dituzte, fruitu edo haien ezaugarrien eta jatorriaren berri emateko.

ESTETIKAN OINARRITUTA. Getxoko Udalak bertoko zuhaitzak landatzeari ekin dio azkenaldian. Hala ere, oraindino horiek gutxiengoa direla ohartarazi dute liburuaren egileek: «Lorezaintzan bilatzen dena ikusgarritasuna da. Lorategietan aniztasuna eta mutanteak nagusitzen dira». Dena dela, gure mendian aurki daitezkeen ezki hostozabalek (*Tilia platyphyllos*), ezki hostotxikiek (*Tilia cordata*), haritzek (*Quercus robur*), lizarrek (*Fraxinus excelsior*), haltz beltzek (*Alnus glutinosa*) eta haginek (*Taxus baccata*) ere osatzen dute udalerriko paisaia.

EHUN URTETIK GORAKO ZUHAITZAK. Udalerrian landatuta dauden zuhaitz gehienak berriak eta gazteak diren arren, badaude ehun urtetik gorakoak ere. Berbarako Algortako Ollaretxe kalean, nabarmentzekoa da tanatorioaren aurrean dagoen sekua handia (*Sequoiadendron giganteum*). Andra Mariko hilerriaren ondoko parkean dagoen artea (*Quercus ilex*) ere oso zaharra dela uste dute adituek, baita Jolaseta-ko zedroa ere, «zuhaitz horien handitze-prozesua oso geldoa da, eta horiek oso handiak dira». Hori dela eta, arbola horien denen garrantzia nabarmentzea gomendatu dute Basozaleak elkarteko kideek, «daukaguna babestu behar dugu, penagarria litzateke ondare hori dena galtzea».

Sekua handia *Sequoiadendron giganteum*

Munduko bigarren zuhaitz handiena da, 100 metroko garaierara irits daiteke. Zuhaitz denen artean, bolumen eta pisurik handiena du, 2.000 tonara ailega daiteke; urtetsuena ere bada, 3.200 urteko alerik ezagutu da.



BESARKADA FEDERAZIOA | Emakumeak Eszenan zikloa

Andreek sortutako antzerkia taulara!



Gemma Martínezek bakarriketa-ikastaroa eman ostean, *Siempre Gila* antzezlan sortu zuten Besarkada Federazioa osatzen duten bost antzerki-taldeek. © BESARKADA FEDERAZIOA

Aztiak taldeak *Las herederas* antzezlan aurkeztuko du domeka honetan, otsailaren 11n, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Hitzordua 19:00etan ipini dute; daborduko salgai daude sarrerak, 3 euroan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Emakumeak Eszenan antzerki amateurraren zikloak dozena bat urte beteko du aurten; hala ere, Besarkada Federazioko kudeatzailea den Maria Urcelay Egiak aitoritu duenez, aurretik ere taularatzen zituzten andreek osatutako taldeen obrak, Emakumeen Bideak egitasmoaren barruan. «Getxoko Antzerki Eskola zen proiektu horren arduraduna. Hori amaitu zenean, parte hartzen zuten konpainiek federazioa osatzea erabaki zuten eta euren kontura hasi ziren antzerki-zikloa antolatzen. Gutxi gorabehera, orduko zirkuituaren irizpideak mantendu egin zituzten; baina, euren gestioatuta eta zuzenduta», azaldu du emakume-antzezlarien koordinatzaileak. Orduan bezala, gaur egun bost antzerki-talde osatzen dute Besarkada Federazioa: Aztiak (Usansolo), Burbujas (Bilbo), Hamaika (Arrigorriaga), Luna Llena (Bilbo), Totum (Bilbo). «Urtero seigarren konpainia bat gonbidatzen dute», Urcelayk gaineratu duenez. Aurten Gernikako Xankore taldea igoiko da ekimenean parte hartzea hitzartuta daukaten udalerrietako agerlekuetara. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxea eta Areetako Andrés Isasi musika-eskola Emakumeak Eszenak zikloaren ohiko agerlekuak dira.

Ekimenaren hamabigarren edizioak dakartzan berrikuntzei dagokienez, Besarkada Federazioa osatzen duten bost antzerki-talde amateurrek «urtero lan berri bat plazaratzeko konpromisoa» daukatela adierazi du Urcelayk. Beraren berbetan, «hori berrikuntza handia da eurentzat, urtero ideia berri bat pentsatzea eta hori jorratzea dakarrelako; kontuan hartu behar dugu emakume hauek ez daukatela askotan entseatzeko denborarik. Ez dira profesionalak». Federazioko kudeatzailearen ustez, «konpainia denentzat erronka handia da urtero antzezlan bat plazaratu behar izatea». Antzerkigintza amateurrean dabil-tzan emakumeen lana ezagutzera emateaz gainera, formakun-



Las Herederas

Galdakaoko Aztiak taldearen antzezlan honetan, aitarren hiletan topo egingo dute lau ahizpek. Ondasun materialez gainera, beste zerbait ere jarauntsi dute: urte askotariko mindurak, konpondu gabeko liskarrak, sekretuak, eta sendiaren zauri irekiak. Mertxe Fernández, Virtudes Nogales, Altami Torres eta Begoña Ibáñez artistek osatzen dute Aztiak taldea; Felipe Cuétara da zuzendaria.

Emanaldi gehiago

Martxoak 4, domeka

Si no lo bebo no lo creo (Xankore), Astrabuduko kultur etxean. 19:00 | 2 euro

Martxoak 11, domeka

Des (Totum), Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. 19:00 | 3 euro

Apirilak 22, domeka

Semillas del pasado (Hamaika), Astrabuduko kultur etxean. 19:00 | 2 euro

Maiatzak 6, domeka

Las herederas (Aztiak), Astrabuduko kultur etxean. 19:00 | 2 euro

tza ere bada Besarkadaren beste helburuetako bat. Urtero ikastaro bat egiten dute eta arte eszenikoen hainbat alor jorratzen dituzte: kale-antzerkia, mugimenduen bitarteko espresioa... Urcelayk azaldu duenez, duela urte bi Aristofanes greziarren idazkietan oinarritutako *Las Lysistratas* muntaia sortzeko aukera izan zuten, Hortzmuga taldeagaz egindako ikastaro bati esker. «Bost antzerki-taldeetako aktoreak batu egin ziren, hamabi edo hamahiru, eta estreinaldia Bilboko Arriaga Antzokiko gelatxoan egiteko aukera izan zuten», aipatu du Besarkadako koordinatzaileak. Gaineratu duenez, «esperientzia horri esker, urtero-urtero elkarregaz antzezlan bat egiteko grina piztu zitzaion». Hala, iaz Gemma Martínez aktore eta zuzendariari egokitu zitzaion bakarriketa-ikastaroa ematea. Kurtso horretatik sortu zen *Siempre Gila* egiteko ideia, umoregile handia zenari omenaldia egiteko asmoz. Getxon eta Erandion iaz egon zen aipatutako lana ikusteko aukera; aurten, urtarrilaren 13an, Berango Antzokian taularatu dute.

AHALDUNTZEA. Besarkada Federazioko kudeatzailea den Maria Urcelay nabarmendu duenez, «konpainia hauetako kide diren emakumeek egiten dute antzezlan aurrera ateratzeko egin beharreko lan dena: ideiak, jantziak, produkzioa...». Beraren ustez, neurri batean ahalduntzeko aukera ematen die. «Adineko emakumeak dira ia gehienak eta afizioz egiten dute antzerkia; euren bizitza eta lana daukate. Hala ere, antzerkigintzak lekua dauka euren eguneroko jardueran; horri eutsi gura diogu», azaldu duenez. Eten barik trebatzen jarraitzen dute, «gero eta kalitate handigoko obrak eskaintzeko asmoz».

Ikusleei dagokienez, besteak beste, Areetako Andrés Isasi musika-eskola bete egiten da, Emakumeak Eszenan zikloko saioen bat dagoen bakoitzean. Urcelayk azpimarratu duenez, «gero eta heterogeneoagoa da publikoa: lehen, emakume gehiago etortzen ziren antzezlanak ikustera; orain paretsu dabil-tza gizonezkoak eta emakumezkoak». Adinari begiratuta, Besarkadako kudeatzailearen arabera jende gazteagoa hurre-ratzen hasi da. Bere ustez, hori ona da: «Ez dugu egin gura adin-tarte konkretu batentzako produktu bat; jende denarentzat egin gura dugu». Bitartean, aipatutako antzerki-taldeek jendea «harritzeko» gaitasuna daukatela adierazi du Urcelayk: «Umoreaz gainera, gauza sakonagoak egiten dakite; ikusleek askotan ez dakite zer aurkituko duten». ◀

Deserriko kantik entzunbide



PLENTZIA | Musika Ken Zazpi taldeko kantaria den Eñaut Elorrieta 2013an hasi zen bakarlari, *Deserriko kantik* diskoagaz. Ikuspegi eta hunkidura ezberdinetatik, erbestertuen bakardade-sentimendua kantu bihurtzen du lan horretan musikari gernikarrak, beti sustraien bila dabilen gizakumearentzat helduleku bat eskaintzeko asmoz. Bariku honetan, otsailaren 9an, Danontzat gaztetxean abestuko du Elorrietak; Plentziako eta Gorlizko Euskara Agendaren barruan antolatu dute kontzertua. Hitzordua 20:00etan ipini dute; sarrera doakoa izango da.

Antzerkia

Otsailak 9, barikua

Alizia lurralde miresgarrian

18:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Umeentzako (3-9 urte) antzezlan. Euskaraz. Sarrera: 4 euro (umeak) / 6 euro (helduak).

Otsailak 11, domeka

Sorgina txirulina ipuin-saioa

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 1 euro.

Linbo planeta

18:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Dejabu Panpin Laborategia taldeagaz. 6 utetik gorako umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 2,50-5 euro.

Dantza

Otsailak 11, domeka

Barrikadak

12:00 | Metro-geltokian | Plentzia

Salbatzaile taldeagaz. Musika eta dantza, kalean.

Erakusketak

Martxoaren 18ra arte

Sokatira 2014-2017

Rekalde Aretoa | Bilbo

Barriek 2018 egitasmoaren barruan. Marta Zelaia Aranbaltza artista urduliztarrak egindako tapiz handia ikusbide izango da. Sarrera, doan.

Lehiaketak

Otsailak 10 eta 11

Argazki-rallya Bolueko hezegunean

10:00-14:00 | Ingurumen-aretoa | Getxo

Informazioa: ingurumenaretoageto@gmail.com

Musika

Otsailak 8, eguna

Yao! rock-taldea

20:00 | The Piper's taberna (Algorta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuitua. Doan.

Otsailak 11, domeka

Inprobisazio-saioa

19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo

Andrés Isasi eskolako jazz-taldeagaz. Doan.

Zinema

Otsailak 8, eguna

The lady in the van

18:00 | Landa doktorea, 3 | Sopela

Itzartu elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

Otsailak 10, zapatua

Salvando el reino de Oz

18:00 | Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Prest daukazu mozerroa?

Altzaga

Otsailak 10, zapatua

11:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako jolasak, azoka zaharrean.

13:00 Madrid Hot Jazz Band taldearen kalejira, Irailaren 23a plazatik abiatuta.

17:00-19:30 Umeen mozerro-lehiaketa eta Dja, azoka zaharrean.

19:30-20:00 Txokolate-edana, udaletxeko arkupeetan.

19:30-21:30 Nagusien mozerro-lehiaketa eta Dja, azoka zaharrean.

21:30 Bokale Brass Band taldearen kalejira, Irailaren 23a plazatik abiatuta.

Astrabudua

Otsailak 9, barikua

19:00 Kalejira, Trabudu Dantzari Taldeagaz, Josu Murueta plazatik, Mendiguren plazara.

20:00 Dantzaxori gure aratusteak ikuskizuna, Mendiguren plazan.

Otsailak 10, zapatua

11:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako jolasak, Mendiguren plazan.

13:00 Bokale Brass Band taldearen kalejira, Josu Murueta plazatik abiatuta.

17:00-19:30 Umeen mozerro-lehiaketa eta Dja, Mendiguren plazan.

19:30 Txokolate-edana, Mendigurenen.

19:30-21:30 Mozerro-lehiaketa, Mendiguren plazan. Oinarriak: erandio.eus

21:30 Madrid Hot Jazz Band taldearen kalejira, Josu Murueta plazatik abiatuta.

Barrika

Otsailak 12, astelehena

18:00 Tostada-lehiaketa, udaletxean.

Informazio gehiago: barrika.eu

Berango

Otsailak 10, zapatua

18:00 Kalejira Berangoetatik frontoira.

18:30 Txokolate-edana, pilotalekuan.

19:00 Disko-festa, pilotalekuan.

Gaia: tribuak.

Erandiogoikoa

Otsailak 11, domeka

11:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako jolasak, Euskadi plazan.

19:00 Lantzeko inauteriak, Goi Alde

Dantza Taldeagaz, Euskadi plazan.

20:00 Txokolate-edana, Euskadi plazan.

20:00 Mozerro-lehiaketan izena ematea.

20:30 Mozerro-lehiaketa, Euskadi plazan.

Gorliz

Otsailak 10, zapatua

17:30 Inauterietako makillaje-tailerra, udal-pilotalekuan.

19:30 Disko-festa, Kaktus Djagaz, udal-pilotalekuan.

Otsailak 11, domeka

13:00 Inauterietako Tostaden X.

Txapelketa, Ibarreta plazan.

Itzubaltzeta/Romo

Otsailak 10, zapatua

12:00-14:30 Umeentzako jolasak, Santa Eugenia kaleko parkingean.

12:00-15:00 Fanfarrea, herrian zehar.

13:30-15:00 Umeen mozerro-lehiaketa, Santa Eugenia kaleko parkingean.

18:00 Txokolate-edana, Cervantes plazan.

18:30-20:00 Kalejira eta mozerroen desfilea, herrian zehar.

20:00-21:00 Umeentzako erromeria, Santa Eugenia kaleko parkingean.

22:00-02:00 Erromeria Urrats taldeagaz, Santa Eugenia kaleko parkingean.

Leioa

Otsailak 10, zapatua

17:00 Umeentzako eta gazteentzako puzgarriak, Ikea Barri plazan.

18:30 *Tras la escoba* umeentzako ikuskizuna, Barré antzerki-taldeagaz, Ikea Barri plazan.

21:30 Mozerroen jaia, Ikea Barrin.

23:00-03:00 Erromeria, Batek daki taldeagaz, Ikea Barrin.

Otsailak 13, martitzena

11:00 Umeentzako parkea,

Kandelazubieta kiroldegian.

12:30 Umeentzako ikuskizuna, Kiki, Koko eta Moko pailazoakaz, Kandelazubietan.

17:00 Umeentzako animazioa.

18:00 Umeen mozerro-lehiaketako parte-hartzaileen desfilea, Kandelazubieta kiroldegian.

19:00 Sari-banaketa, Kandelazubietan.

Plentzia-Gorliz

Otsailak 9, barikua

18:30 Euskal Inauteriak Aratz Dantza Taldeagaz eta txokolate-edana, Ibarreta plazan.

Sopela

Otsailak 11, domeka

18:00 Mozerro-lehiaketa eta inauteri-festa, Urko kiroldegian.

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

Erronka partiduetara mugitu da



San Lorentzo futbol-zelaian izan dira Mintzo gehien. HODEI TORRES

Erandioko futbol-taldeak egiten dabilta Baietz Lortu! 60 Egunean Euskaraz ekimenaren balorazioa. Mila jokalarik baino gehiagok aukeratu dute euskaraz berba egiteko edo entzuteko prest egotea. Partiduak landuko dituzte orain.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Hirugarren denboraldiz, euskara, futbola eta Erandio eskua elkarri emanda dabilta, Futbola Oinarritik Euskaraz (FOE) proiektuaren bidez. Helburu horregaz, talde berean jokatzen ibili dira Erandio Kirol Elkartea, Astrabuduako futbol-taldea, Erandioko Udal Euskara Zerbitzua, Eusport enpresa eta aurtengo fitxaketa berria: Erandioko Betiko Neskak kluba. Joan den irailean, Baietz 15 Entrenamendu Euskaraz! dinamika abiarazi zuten behe-taldeek eta behin hori beteta, klubetako talde denetara zabaldu zuten kanpaina berri bat, azaroan: Baietz Lortu! 60 Egunean Euskaraz.

Jolas horretan parte hartu gura izan dutenei ekimenak rol bi eman dizkie: mintzo eta adi. Mintzoren papera aukeratu dutenak prest agertu dira euskaraz eta gaztelaniaz entzuteko, eta euskaraz berba egiteko. Ostera, Adi profila gurago izan dutenek aukera eman diete euskaldunei eta gaztelaniadunei gura duten hizkuntzan berba egin diezaieten.

FOE ez bezala, erronka eta jolas horretan kirol-elkarteetako kide denek eduki dute parte hartzeko aukera, betiere modu boluntarioan. Hala, jokalariek ez ezik, euren rola aukeratu ahal izan dute zuzendaritzako kideek, gurasoek eta boluntarioek, baita arerio-taldeek eta euren segizioek ere.

Aritz Monasteriok azaldu duenez, «oso ondo» joan da ekimena. Astrabuduako futbol-taldeko koordinatzaile eta euskara arduradunaren arabera, «Astrabuduako eta Erandioko Betiko Neskak taldeetan datu harrigarriak jaso ditugu. Ume gehienak euskaldunak izan arren, euskaraz ikasten dutelako, euren aukera honakoa izan da: %66k Mintzo pegatina aukeratu du; %33k Adi; eta, azkenik, %1 egon da, pegatinarik ez duena aukeratu. Deigarri gertatu zaigu datu hori, uste genuelako euren partez erresistentzia handiagoa aurkituko genuela, baina ez da horrela izan. Jokalariek eta entrenatzaileek aukeran zituzten pegatinak. Entrenatzaileen kasuan, gainera, umeentzat eredu

«Entrenatzaileok berba gehiago egingo dugu euskaraz»

ANDREA AZKUE
BETIKO NESKAK TALDEKO TEKNIKOA

«%66k Mintzo pegatina aukeratu du; %33k Adi; eta %1ek bat ere ez»

ARITZ MONASTERIO
ASTRABUDUKO KOORDINATZAILEA

«Pegatinen jolasa ondo iruditu zait, euskara gehiago ikasi baitugu»

AIDA GALLEGU
BETIKO NESKAK TALDEKO JOKALARIA

gisa agertzeko zen». Datu hobereak San Lorentzo futbol-zelaian batu dituzte. Halere, Erandio Kirol Elkarteko taldeak ez dira oso urrun gelditu: «Mintzo aukeratu duen kopurua apur bat baxuagoa izan da, nahiz eta Adiri nagusitu zaion, baina joera gutxi gorabehera Astrabudian izandakoaren antzekoa izan da», gaineratu du Monasteriok. Denera, «mila pegatina baino gehiago» ipini dituztela nabarmendu du.

Andrea Azkuek ere begi onez ikusi du erronka. Erandioko Betiko Neskak klubeko kadete-taldeko entrenatzailearen ustean, «oso ondo etorri zaigu, batez ere txikiei. Kimuek aurrerapen izugarria egin dute, kadeteakaz, ostera, arazo gehiago izan dugu, baina txikiakaz ondo egon gara. Aurrerapenak ikusi ditugu. Gure ustean ona izan da». Azaldu duenez, «parte hartu ez dutenak entrenatzaile batzuk izan dira. Izan ere, ez dakite euskaraz eta zailtasunak izan dituzte. Jokalariei dagokienez, gehienek euskaraz berba egiten dute edo ulertzen dute. Zailtasunak hiruzpalau entrenatzaileguz izan dira. Besteok badakigu eta ondo moldatzen gara».

Gurasoak ere ez dira jokalarien inplikazio-mailara heldu, baina arreta gutxiago ipini dietela aitortu du Monasteriok: «Apur bat boluntario ipini dugu pegatinena harmailetan, mahai batean». Azkuek azpimarratu duenez, «guraso gehienek ez dakite euskaraz. Baina ekimena komentatu diegu eta esan digute ideia ona dela, batez ere umeentzat, euskara eskolatan baino ez dutelako erabiltzen eta euren euskara-maila bultzatzeko ondo etorriko zaiela».

Animazioan ere, pauso batzuk eman dituzte. «Giro euskaldunagoa sortzeko» megafonia erabili dute, elkarriketarako egin dituzte eta gurasoei azaldu diete zelan animatu dezaketen euskaraz; horretarako, esaldi eta berba batzuk zeuzkaten paperak banatu zituzten. «Giroa aldatzen ahalegintzen gabiltza», nabarmendu du Monasteriok.

Diagnostiko-fasean topatu dituzten indarrak orain baliatuko dituzte, Partiduetan Ere Euskaraz dinamika berrian, Azkuek aurreratu duenez. «Guk, entrenatzaileok, zailtasunak ditugu, betidanik erdaraz egin dugulako jokalaria», dio. «Adibidez, guk kadeteakaz beti berba egin dugu erdaraz futbol-zelaian, beti. Hortaz, orain euskaraz hastea apur bat zaila da. Baina denboragaz uste dut hori konponduko dugula eta gehiago berba egingo dugula euskaraz», agindu du Azkuek. ◀

MARIA MARTINS
Sopela Women's Team-eko txirrindularia

«Mendia ez da nire lagunik onena»



Ilusioz eta behar egiteko gogoz etorri da Euskal Herrira Portugalgo txapelduna. HODEI TORRES

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Portugaldik Uribe Kostara etorri da Maria Martins txirrindularia (Moçarra, Santarém, 1999). Bairrada txirrindularitza-kluba utzi du, Soraia Silva taldekideagaz batera, Sopela Women's Team euskal UCI talde profesionalera batzeko. Hala, Belgikan lehiatzen dabilen Daniela Reis aberkidearen eredu segitu dute. Hirurak dira atzerrian elite-mailan dabilen hiru emakume portuges bakarrik.

Zelan ikusten duzu Sopela Women's Team taldea? Talde indartsu eta ahalmentsua dela iruditzen zait. Eskarmentua hartzeko baliagarria egingo zait, datozen urteoi begira. Plazera izan da etortzea eta oso pozik nago taldearen parte izateagatik.

Palmaresa

- Europako txapeldunordea eliminazioan, iaz, eta scratch-en, 2016an, gazte-mailan.
- Portugalgo txapelduna: scratch, omnium eta puntuazioan, aurtun, elite-mailan; eta erlojupekoan eta errepidean, iaz, gazte-mailan.
- Lau etapa: hiru Taça de Portugalen eta bat Lakuntzan, iaz, gazte-mailan.

Aurretik ezagutzen zenituen zure lankideak? Bai, euretako asko bai, nigaz lehiatu zirelako iaz. Eta besteakaz kointziditu nuen, hemen egindako lasterketetan. Gustura nabil eurakaz.

Zelan erabaki zenuen Sopelara etortzea? Portugalen txirrindularitza-taldeek ez daukate beharrezko baldintzarik gure etorkizuna bermatzeko. Nire entrenatzaileak eta biok, Portugalgo Txirrindularitza Federazioagaz batera, Sopela taldeagaz berba egin genuen eta emaitza oso ona izan zen. Gogotsu nabil.

Zeintzuk dira zure helburuak denboraldi honetarako? Oinarritik hasita, bizikletaren gainean ibili eta apurka-apurka esperientzia eta helburu berriak lortzea, hobeto entrenatzen utziko didatenak.

Zer lan egingo duzu taldearen barruan? Gogoia dut talde osoarentzat lan egiteko, baita taldeak nire alde egin dezan ere. Txirrindularitza horrelakoa da.

Erlojupekoan eta pistan ondo moldatzen zara; esprintei begira ibiliko zara? Bai, esprintetarako txirrindulari ona naiz; helmugan azkar nabil. Aldiz, mendia ez da nire lagunik onena, baina ahaleginduko naiz horretan hobetzen.

Portugalgo bost txapelketa lortu dituzu. Bai, hiru pistan, bat erlojupekoan eta bestea errepidean. Azken urtea izugarria izan da, orain arte nire onena. Ez nuen halakorik espero; eta, horri esker, jautzia eman ahal izan dut.

Europako txapeldunorde izan zinen, lehen aldiz, 2016an. Bai, hori izan zen nire lorbidea gazte-mailako bigarren urtera heltzeko. Gero etorri zen aipatutako bigarren urte izugarri hori.

Zer gelditzen zaizu irabazteko? Beti gura dugu irabaztea, baina kontua da ahalik eta hoberen egitea. Hala egin arren, beti ez dugu onena lortzen. Beharraz gainera, zortea ere izan dut azken urteotan, eta emaitzak ikaragarriak izan dira.

Zer iritzi daukazu euskal txirrindularitzaz? Hemengo txirrindularitza indartsu dabil; askotan lehiatu naiz hemen eta oso gogorra da. Asko estimatzen dut hemen egotea. Gustuko ditut hemengo jendea eta komunitatea.

Zelan hasi zinen txirrindularitzan? Osabagaz paseatzen hasi nintzen. Gerora, apurka-apurka, lasterketetan parte hartzen hasi nintzen, eskarmentua hartzen... eta orain hemen nago. Atzera begira ipinita, lan mordoa eginda dago; eta aurrera begira, gogo handia ere badut. Gero eta gehiago lan egin gura dut.

Besterik esan gura duzu? Eskerrak eman gura dizkiet nire ibilbide laburrean lagundu didaten pertsona denei, eta Sopelari, aukera ederra eman didalako. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

URIBE KOSTA | Barrika, Gatika, Gorniz, Lemoiz eta Plentzia

Oinezkoentzako pasealeku berria, Butroen barrena

Espainiako Ingurumen Ministerioak oinezkoentzako ibiltokia egin gura du Butroen itsasadarren ibaiertzean. Proiektua Plentzia, Barrika, Gatika, Lemoiz eta Gorniz udal-mugarteetan egikaritzea dago aurreikusita. Plentziako Udalak egitasmo horren nondik norakoak azaltzen dituen txostena utzi du ikusgai, kopisterian. Ideia da herritarrek alegazioak edo iradokizunak egitea, udaletxeko erregistroan, hilaren 12a baino lehen.



SOPELA | EH Bilduren gezurtapena

BOE bat apartamentu turistikoa gisa eskaintzeagatik isuna ipini diote sopeloztar bati; EH Bilduk gezurtatu du pertsona hori koalizioako kidea dela.

GETXO | Omenaldia



Gerra Zibilaren, gatazka zibilen eta frankismoaren biktimei gorazarre egin diete.

GETXO | Patinaje artistikoa

Patinaje Artistikoko Getxo Hiria Nazioarteko V. Txapelketa izan zen joan den astean Fadura kiroldegian; 330 kirolarik parte hartu zuten.

GETXO | Arrauna

Raspas arraun-elkarteko emakumeek lau domina lortu dituzte Espainiako txapelketetan, Arraun-ergometrokoan eta Distantzia Luzekoan, alegia.

GETXO | Algortako 9 lagun zeuden auzipetuta

Herri harresia irudikatzeagatik, 50 lagunetatik zortzi zigortu dituzte

Joan den urtarrilaren 9an 50 lagun kontrako epaiketa izan zen Madril. Ernaiko zazpi gazteei, tartean algortar bat, eta Topatuko kideari zigor ekonomikoa ipini diete. Publikoa, aldiz, absolutu egin dute.



LEIOA | Garraioa

Leioako tranbia atzeratzeko eskatu du EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean

Larraitx Ugarte eusko legebiltzarkidearen berbetan, «aurretik, denboraz eta seriotasunez aztertu beharko lirateke egon daitezkeen alternatibak eta horiek herritarrengan duten eragina, udalerriaren beharrezko kontuan hartuz».



METAMORFOSIA | Itzubaltzeta/Romoko neska gazte feministen taldea

«Patriarkatuaren erasoak egongo direla susmatu arren, eraso bako inauteriak izateko deia egiten dugu»



TOSU BETIRAKO | Ibarbengoako aparkalekua egiteko obren eraginak

«Obrek bertoko auzokideei arazo ugari eragin dizkiete: zarata, bideen mozketak, arrakalak etxeetan...»

50' 18''

Mikel Bildosola igerilari getxoztarrak 35 urtez gorako Europako errekorra gainditu du, 100 metro librean. Aurretik ezarritako 50' 54'' denborako marka hautsi du.

HIRUKAren kanta, entzunbide



Eskualdeko hainbat musikariek «HIRUKA hiru urte» abestia osatu dute.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Kultur Leioaren ekimenez, Ez dok hiru ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu

Otsailaren 24ko euskarazko ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, otsailaren 18a (domeka) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Otsaileko saria



Masaje lasaigarria, Erandioko Bare Zentroaren ekimenez

Bare Zentroaren ekimenez, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali otsailaren 28a (eguztzena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

3	5		4				2
		1				9	
	4				5		
				8			6
					2		8
6				1			3
2		4	8	9			
		8		7		6	2
5	6	7					

				9	2		
						8	
		2	4	7			
		4		9		1	5
		5	1		2		
					6		7
7	4	3			1		9
	8					5	1
5						3	

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

9	4	3	7	8	6	1	5
1	5	2	4	3	6	8	9
6	2	8	1	5	9	3	7
3	7	6	9	4	5	8	1
8	9	4	2	3	1	5	7
2	1	5	8	6	7	4	3
1	6	9	5	7	4	2	8
5	8	7	3	1	2	6	4
3	4	2	6	9	8	7	5

6	4	8	1	3	2	7	9
1	2	9	4	7	5	8	3
5	7	3	9	6	8	1	4
3	6	4	5	1	7	2	8
8	5	7	2	4	9	3	6
1	6	3	2	8	9	5	7
7	3	5	9	1	2	6	4
4	9	6	8	5	3	1	7
2	1	8	7	4	6	9	5

Hitza emanda

Itxura

Polita, itsusia,
argia, itzala...
dena epaitzen dugu
ikusi bezala;
ez bagenu horrela
egingo, oxala!,
beti ez baitatoz bat
mamia ta azala!



JONE URIA
ALBIZURI
Getxo



Lehen/Orain **Areetako Bizkaiko Zubiko plaza** 20ko hamarkadaren inguruan



ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO



Erretratua **Julen Begoña Garaizar** Alboka-jotzailea

80ko hamarkadaren amaieran ekin zion alboka jotzeari Julen Begoñak, Berangon bizi den sopeloztarrak. Bere lehenengo diskoa grabatzeko asmoa du aurten.

TESTUA: KERMÁN SANTIAGO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Tresnaren «doinu zorrotz-goxoak liluratuta», alboka ikastea erabaki zuen Julen Begoña Garaizarrek gaztetan. 20 urte gaz ekin zion jotzeari Romo Kultur Etxean, Ibon Koteron maisu zuela. Koteron musika munduan ezaguna da, besteak beste 1996an *Leonen orroak* diskoa kaleratu zuelako Kepa Junkeragaz batera, albokaren eta trikitixaren soinuak uztartuz. Ondo irakatsitakoa dugu Begoña, beraz.

Sopeloztarragaz batera, 80ko hamarkadan albokaren erreleboa hartu zutenak (denak gizonak, «tamalez») abesti zahar eta berriak jotzen ahalegindu ziren. «Seguruenik albokaren historian egon den aldaketa nabarmenena ematea lortu genuen», dio Begoñak. «Garai hartan alboka hiltzorian zegoen; gaur egun, berriz, musika eskoletan jotzeko eskaintza dago», gehitu du.

«80ko hamarkadan albokaren historiako aldaketa nabarmenena ematea lortu genuen»

30 urte daroatza Begoñak albokaz gozatzen, baina ez du sekula lan berririk sortu. Aurten, ordea, Fredi Paiaren eta Joseba Santxoren letrakaz, lehenengo diskoa kaleratzeko asmoa du, Berangoko Zarata estudioan grabatuko dena. «Ea kapaz garen, grabaketak errespetua ematen baitu; saiatu behintzat, saiatu egingo gara».

Alboka haize-instrumentua da, doinua kontrolatzeko zortzi zulo daukana. Kainaberrazkoak izan ziren lehenengoak, gero egurrezkoak sortu ziren, eta gaur egun plastikozkoak ere badaude. Jotzen hasteko egokienak dira horiek, Julen Begoñak argitu digunez. ◀

